

Erdialdea

Denok Besaidera!

Hilaren 16an, igandea, euskal mendizaleek zita polita dute. Duela 46 urte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mugan, Besaiden, hildako euskal mendizaleen omenezko monumentua eraiki zuten. Ordutik iraileko hirugarren igandean, mendizaleek erromeria egiten dute Besaiden. Igandean, goizeko 11.30-etan meza egingo da. Ondoren, Euskal Mendi Federazioko presidente Antxon Bandresek hildako mendizaleak ekarriko

Euskal mendizaleek zita dute Besaiden

ditu gogora. Bandresen hitzen ondoren, bertsolariak eta trikitalariak ariko dira. Club Vasco de Campingeko kideak urtero bezala, han izango dira. Beraiekin joan nahi izanez gero, 943-428479 zenbakira hots egin dezakezu.



Club Vasco de Camping taldeko kideak ere Besaiden izango dira.

Intxaurrondo

Extremadura gogoan



Hilaren 15ean, igandea, Donostiako Extremadura Etxeko XXIV. Kultur Jardunaldiak hasiko dira. Aurreko urteetan bezala, bertako kideek hainbat ekitaldi antolatu dituzte Zarategi pasealekuko egoitzan. Jardu-

Igandean Extremadurari buruzko jardunaldiak hasiko dira Extremadura Etxean.

Jardunaldiok hilaren 23ra arte luzatuko dira

naldiok hilaren 23ra arte luzatuko dira, eta jakina, Extremadurako gastronomiak tarte zabala izango du bertan: erakustaldia, produktuen dastaketa, afaria... Horrez gain, Extremadurako ohiturei eta kulturari buruzko hiltzaldiak egingo dira. Astebetez ez da, beraz, girorik faltako Extremadura Etxean.

NARRIKA
taberna

Narrika 16
Tel.: (943) 427327

etxekalte



BORDA JATETXEA

- Ezkontzak, enpresa bazkariak, senitartekoen bilerak, agur-afariak... egin ahal izango dituzu.
- Diskoteka zabalik ostirala eta larunbata gauetz.

Sorabilla auzoa z/g ANDOAIN
• Tel.: (943) 59 28 60

